

HEZITZAILEAREN JARDUERAK

KONPETENTZIA PERTSONALAK ETA HARREMANEKOAK

- Enpatia
- Arduratsua
- Bizitza pertsonala eta profesionala ezberdintzen jakitea
- Leiala
- Konfiantzazkoa
- Motibatzailea
- Errespetuzkoa
- Hurbiltasuna
- Ikuspegi irekia
- Sortzailea
- Armoniatsua
- Konpromezua

Gure aportazioak:

Hezitzen dituzun pertsonekin harreman pertsonal estu bat sortu behar du hezitzaileak, eta horretako, jarrera positibo, espiritual zein moral bat erakutsi. Horrekin ere estuki lotua agertzen da lanbide honen etika eta bakoitzaren ibilbide pertsonala. Aspektu pertsonalak bere baitan barnebiltzen duena hezituarekin duzun harremana asko lantze da, eta honi konfiantza, behar duen atentzioa, komunikazio positiboa, sentsibilitatea eta halakoak helaraztea. Finean, hezitzaile bera hezituaren bizitzan sartzeko eta bertan aldaketak ematen laguntzeko pertsona bihurtzen da.

Besteteik, hezituak ez du hezitzailearen ingurunera edo beharretara egokitu behar, baina hezitzaileak bere partetik bai. Horregatik, zearo garrantzitsua da, hezituaren beharretara edo interesetara egokitzen jakitea baina aldi beran profesionalki jardun eta distantzia mantentzen ikastea. Horren harira, beharrezkoak ikusten ditugun beste zenbait konpetentzia ditugu: etikaren inguruko hausnarketa ematea, bere printzipioak eta baloreak errespetatu eta erakustea, profesionala izatea eta aurkitzen den eremuko kontzientzia garatu bat izatea.

KONPETENTZIA SOZIALAK ETA KOMUNIKATIBOAK

- Kooperatiboa
- Arazoei irtenbideak bilatu
- Talde dinamika prestatzeko gaitasuna
- Elkarlana
- Profesionalen arteko komunikazioa
- Taldean lan egiten jakin
- Metodo eta protokoloen ezagutza eguneratua
- Metodoak aplikatzeko gaitasuna
- Esku hartzeko gaitasuna

- Pertsona bakoitzari egokitzen dakiena
- Lerroen artean irakurtzen jakin
- Diagnostikorako gaitasuna
- Entzute aktiboa
- Komunikazio aktiboa
- Komunikazio asertiboa
- Ulerkorra
- Komunikatzen jakin

Gure aportazioak:

Hezitzaile bezala ezinbestekoa da talde lanean jarduten jakitea, eta hemen sortu daitezken arazo zein desadostasunei erantzuten eta horiek konpontzen saiatzea. Aldi berean, oinarrizkoa da hezituaren familia zein testuinguruarekin harremanetan egotea, baita beste zenbait instituzioekin harremanetan eta komunikatzen jakitea. Horretarako, garatu beharrezko kompetentziak hauek dira: arazoak konpontzen edo gestionatzen saiatzea ikasi duen jakintza edo teoria horren baitan, arazoak konpontzeko metodo ezberdinen ezagutza edukitzea, elkarlanean jarduteko formak barneratuak izatea, taldeko dinamikak bultzatzea eta lan psikologiko bat egitea.

Bestetik, hezitzaileak guraso eta familiarrekin harreman bat mantendu behar du, eta horretarako, komunikazio teoriko, praktikoa zein metodologikoak barneratuta izatea oso beharrezkoa suertatzen zaio. Modu horretan, elkar- trukatzeko dituzten mezu horiek ulertu eta ikuspuntu ezberdinak jorratu adostasun batera iristera bidean.

Amaitzeko, hezitzaileak hezituentzako gaitasun edo erreferente antzeko bat izan behar du, eta horretarako, hauei aholkuak emateko gaitasuna izan behar du, eta aldi berean, gaitasun hori ondo kudeatzeko abilezia.

ORGANIZAZIOKO KONPETENTZIAK

- Konpromezua
- Puntuala
- Konstantzia
- Arduratsua
- Malgua
- Segurua
- Autokontrola
- Akatsak onartzen dakiena
- Elkarlana
- Berritzailea
- Planifikatzailea
- Taldelanean aritzeko gaitasuna

Gure aportazioak:

Lehenik eta behin behin eta berriro egiten ari denaren inguruko hausnarketak burutzea funtsezkoa iruditzen zaigu hezitzailea batentzat, azken batean, dena zalantzan edota kolokan jarritz, metodologia berriak ikustea ahalbidetzen digu.

Bestetik, gaiaren inguruan formazio eta ezagutza handia edukitzea beharrezkoa ikusten dugu eta formazio hori, iraunkorra izatea, hots, etengabeko garapena eta formazioa jasotzea. Hau, instituzioek ahalbidetzea eta eskaintzea beharrezkoa izango litzateke, hezitzailea onak eta benetan bere lana ondo egiten dutenak lortzeko.

SISTEMAREN KONPETENTZIAK

- Sortzailea
- Segurua
- Motibatzailea
- Ulerkorra
- Ikuspegi irekia
- Entzunle aktiboa
- Erresistentzia
- Behatzailea

Gure aportazioak:

Alor honetan, hezitzaileek “sistema”-rekiko ezagutza bat eduki behar dute, eta baita hau osatzen duten instituzioekiko. Izan ere, hezitzen ari diren pertsona horiek lehenago edo beraduago gizartean “integratu” edo aurrera jarraituko dute modu batera esaterako, beraz, gizarteko konpetentziak jakitea oinarrizkoa da, esaterako lan munduari begira. Honekiko hezitzaileak garatu beharreko konpetentziak: lan munduarekiko jakintza zabal bat izatea, marko legislatiboari, araei eta adostasunei dagokienez; bestetik, administrazio publikoaren zein pribatuaren inguruko jakintza edukitzea bere esperientzian oinarrituta; jakitea eta konprenditzea organizazio eta administrazio sistemak, baita beraien gestioa, plangintza zein dituzten demanda edo beharrak, etorkizunera begira enpresa pribatu zein publikoek eskatuko dizkien dokumentazio, ebaluazio, zein kalidadearen garantiaren inguruan ezagutza izateko; lan soziokulturalaren zein sistemaren ebaluaketaren inguruko ezagutzak edukitzea...

IKASKUNTZA ETA GARAPENAREN KONPETENTZIAK

- Ikuspuntu irekia
- Akatsak onartzen dakiena
- Autokontrola
- Dinamikoa
- Sortzailea
- Metodo eta protokoloen ezagutza eguneratua
- Bere lana gustura egiten duena
- Talde dinamikak erabiltzen dituena
- Metodoak aplikatzeko gaitasuna

- Esku hartzeko gaitasuna
- Pertsona bakoitzari egokitzen dakiena
- Komunikatzeko gaitasuna
- Arazoei aurre egiteko gaitasuna

Gure aportazioak:

Arlo honetan, beharrezkoa ikusten dugu, hezitzailearen etengabeko garapen profesionala zein pertsonala, hala nola, konponbideen eta laneko metodoen etengabeko garapena, baita ere, hezitzailearen kompetentzia propioen etengabeko hazkuntza. Horrela, hezitzaileak berak gizartearen aldaketetarako prest egon behar du. Horretarako beharrezko kompetentziak: kompetentzia profesionalak zein base teorikoak hobetzea formazio garapen konstante baten bidez; gaitasun eta ezagutza berriak barneratzeko ahalmena izatea; hobekuntza sistematikoaren, estrategiaren eta kompetentzien egokitzapenaren inguruko informazioa edukitzea edo garatzea...

LANARENGATIK SORTUTAKO KONPETENTZIAK

Aurreko kompetentzia guztien elkarretaren ondorio izango litzateke kompetentzia hau, eta lanean jarduten zoazen heinean ikasten dituzula kontuan hartu behar da. Hauek izango lirateke hezitzaile bezala jardun ahala barneratu beharreko kompetentziak:

- **KONPETENTZIA TEORIKO ETA METODOLOGIKOAK:**
 - Metodo eta protokoloen ezagutza eguneratua.
 - Diagnostikorako gaitasuna
 - Metodoak aplikatzeko gaitasuna
 - Esku hartzeko gaitasuna
 - Talde lanean aritzeko gaitasuna
 - Profesionalen arteko komunikazioa
 - Talde dinamikak prestatzeko gaitasuna

Gure aportazioak:

Hezitzaileen gaitasunen artean gaitasun soziokulturalarena eta profesionalarena kokatzen badira ere, gaitasun teoriko eta praktikoak, zein metodoari eta instrumentuari lotutakoak izan behar dituzte. Horregatik, barneratu beharreko kompetentzien artean hauek aurki ditzakegu: egungo hezkuntza teoria zein metodologiaren ezagutza edukitzea; teoria eta metodo hezitzaile, psikologiko, soziologiko, antropologiko... ezagutzeko eta barneratzeko gaitasuna izatea; lanean onartutako metodoen inguruko jakintza izatea, eta hauen erabilpen zuzen bat burutzea...

- **IZAERAREKIN LOTUTAKO KONPETENTZIAK:**
 - Metodo eta protokoloen ezagutza eguneratua
 - Metodoak aplikatzeko gaitasuna
 - Talde dinamikak prestatzeko gaitasuna

- Autokontrola
- Akatsak onartzen dakiena

Gure aportazioak:

Arlo honetan, hezitzaileak profesio soziokulturean jarduteko ezagutzak plazaratu eta erakutsi behar ditu: terminologiaren jakitun izatea eta lanbideko kontzeptuak ezagutzea eta horiek barneratuak izatea; lanbidearen etika eta moralak plasmatzeko gaitasuna izatea; debateetan parte-hartzeko gaitasuna izatea, baita akordioetan edo proposamen ezberdinetan...

- KONPETENTZIA KULTURALAK:

- Ikuspegi irekia
- Ulerkorra
- Aurreiritzirik ez
- Ikuspegi objektiboa
- Hurbiltasuna
- Enpatia
- Kooperatiboa
- Malgua
- Akatsak onartzen dakiena

Gure aportazioak:

Interkulturalitatea lantzen jakin behar du hezitzaileak, eta horretarako, hezituen balore kultural horiek errespetatzen eta kontrolatzen jakin behar dute, betiere hezituen ongizateari begira. Gainera, hezitzaileak kultura ezberdinetako balore, ohitura zein printzipioak jakin behar ditu, eta aldi berean, praktika soziokulturala aurrera eramaten duten instituzioekin harreman bat sortu.

- KONPETENTZIA SORTZAILEAK:

- Sortzailea
- Motibatzailea
- Dinamikoa
- Ikuspegi irekikoa
- Egoten dakiena
- Berritzailea

Gure aportazioak:

Hezitzailea bera sortzailea izatea ezinbestekoa da, eta sormen hori hezituei transmititzea. Horretarako funtsezkoa da musika, artea eta halako alorretan ezagutza eduki eta hezituen ere beraien garapen pertsonalera bultzatzea. Horretarako, sormenaren mugak ireki behar ditu eta beraien abileziei garapen aske bat utzi.